

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Barrundiako Udalaren 16ko 154/2020, ebazpenaren laburpena, euskara ikasteko beken deialdia. 2019/2020 ikasturtea

BDNS (Identif.): 503650

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira euskalduntze prozesuan sartuta dauden pertsona guztiak, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

2019/2020 ikasturtean euskara ikastaroak burutzearren dagozkien zenbatekoei zati batean finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 27an egindako batzarrean, euskara bekak emateko araupe-tuko duten oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 4.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 335.480.001.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaeta, 2020ko apirilaren 27a

Alkate-Lehendakaria
IGOR MEDINA ISASA